



BIZKAIKO EUSKO PILOTA FEDERAKUNTZA
FEDERACION BIZKAINA DE PELOTA VASCA

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet pasa den maiatzaren 27an pelotari eta epailen estamentuen hauteskundeetan parte hartu eta Bilborarte hurbildu zintaten guztioi.

COVID-19ak denontzat ezagunak diren arazoak sortu badizkigu ere (eta oraindik gora-beherak eragiten jarraitzen badu ere), barkamena eskatu nahi dizuet hauteskundeetan eragin duen atzerapenagatik. Berau ia urte betekoa izan denez, lau urtetarako planifikatuta genituen helburuak hiru urtetan egitea besterik ez zaigu geratzen.

Trabak traba, jakinarazi nahi dizuet zuzendaritza batzorde berriko kideok federazio honen gidaritza illuso eta gogo handiz hartu dugula. Ahal den neurrian, eta denporak uzten digun heinean, gure helbururik nagusia denok maite dugun kirol hau Bizkaia guztian zehar ahalik eta gehien zabaldu eta promozionatzea izango da. Motibazio hori guztia emaitza bihurtzea da gure nahia eta guretzat lorpen garrantzitsuena honakoa izango da; zuok guztiok federazio honekin identifikatuta sentitzea.

Amaitzeko, guretzat aparteko garrantzia duen aipamen bat elkabanatu nahiko genuke. Federazio ororen oinarria komunikazio ona da. Hori sustatu eta errazteko zonalde eta modalitate ezberdinetarako hiruhilabeteko batzarrak, galdeketak, idatzi eta komunikatu aktiboak egitera konprometitzen gara, elkarte eta eragile guztiak informatuta egon zaitezten.

Hau esanda, edozein gauzatarako zuen esanetara geratzen gara.

Eskerrik asko... eta egurra!

Enaitz Olaeta



BIZKAIKO EUSKO PILOTA FEDERAKUNTZA
FEDERACION BIZKAINA DE PELOTA VASCA

Me gustaría empezar agradeciendo a todos los clubes, pelotaris y jueces que participasteis de manera directa o indirecta en las elecciones de los estamentos de pelotaris y jueces el pasado 27 de mayo.

También, comentar que aunque todos hemos sido conscientes de las dificultades que nos ha generado la Covid 19, quería pedir os disculpas personalmente a todos los estamentos por el retraso con el que se han celebrado estas elecciones. Este hecho nos limita la legislatura a tres años, por lo que nos tenemos que poner las pilas para hacer lo de cuatro en tres.

Quería deciros que tanto yo como la futura junta directiva, cogemos las riendas de esta federación con muchísimas ganas, para trabajar en retos emocionantes y esperemos que fructíferos, con apetito y muchísima ilusión con el objetivo de promocionar este deporte lo más que se pueda y nos dejen por toda Vizcaya. Queremos que estos tres años sean años activos para la pelota y que esa actividad se refleje en resultados. Como pelotaris que somos, queremos y esperamos que tanto clubes como pelotaris os sintáis representados por esta Federación y trabajaremos duro para que esto sea así.

Por último, recalcar que para nosotros el pilar de cualquier Federación tiene que ser una buena comunicación. Por ello, vamos a facilitar que esto sea así comprometiéndonos a hacer reuniones zonales trimestrales, cuestionarios, encuestas y comunicaciones activas.

Dicho esto, quedo a vuestra disposición para cualquier cosa que necesitéis.

Gracias y manos a la obra.

Enaitz Olaeta